



Malen Jauregialtzo  
Aixerrota BHI, 13-14

# Aurkibidea

---

Jordi Sierra i Fabra .....	2
Aurkezpena .....	2

## ***Anaren Bakardadea***

• Kokapena .....	3
• Gaia .....	3
• Argumentua .....	3
• Istorioa .....	3
• Egituraketa .....	4
• Pertsonaiak .....	5
• Baliabideak .....	6
• Iritzia .....	6
Bibliografia .....	7

# JORDI SIERRA I FABRA

---



Obra honen egilea Jordi Sierra i Fabra idazle kataluniarra da. Bartzelonan jaio zen 1947. urtean eta gazteen artean egilerik irakurriena eta ospetsuena da. Txikitatik hasi zen idazten, hamabi urterekin idatzi zuen bere lehenengo nobela luzea. Aparejadorea izateko ikasi bazuen ere gaztea zela munduan zehar bidaiatzen hasi zen *El*

*Gran Musical De Cadena Ser* delakoarekin. Hain zuzen ere, pop musikaren historiaren inguruan idatzi zuen argitaratu zuen lehenengo liburua. Aurrerago, *Super Pop* aldizkari entzutetsua plazaratu zuen eta beste hainbat liburu idatzi ditu gazte eta helduentzako. Bere lan aipagarrienetako batzuk dira *Lennon gaztea* eta *Beldurraren mezularia*. Sari asko irabazi ditu, *Gran Angular* eta *Edebé* saria, esaterako.

## AURKEZPENA

---

Gazteen munduan kokatuta dagoen istorioa da obra hau. Adin txikikoen artean, batez ere, gertatzen diren gogoz kontrako haurdunaldiak pairatzen dituztenen egoera salatzen duen istorioa da. Gaur eguneko gizartean kokatuta dago eta edonor senti liteke identifikatuta istorioko pertsonaiekin. Astebetean, gaizki egindako abortu baten erruagatik neska gazte baten heriotzaren ikerketa da eleberri honetan kontatzen dena.

# ANAREN BAKARDADEA

---

## **KOKAPENA**

Istoria, Kataluniako herri txiki batean, denek elkar ezagutzen duten horietako batean, dago kokatuta. Oraingo gizartearen isla egiten du, beraz, gaur egungo garai honetan dago kokatuta. Istoria zazpi egunetan gertatzen da, Victoriak, istorioa kontatzen duen pertsonaiak, Londresetik bueltatu eta bere herrian igarotzen duen denboran, alegia. Neska honek bere ahizparen (Ana) haurdunaldia eta heriotza ikertzen ditu astebete horretan.

## **EDUKIA**

### *Gaia*

Anaren haurdunaldia eta heriotza: bere ahizpak horren inguruan egindako ikerketa.

### *Argumentua*

Bere ahizpa abortu batengatik hil dela jakin bezain laster, Victoriak Londresetik, ikasten ari den lekutik, hegazkin bat hartzen du bere herrira. Han, Anaren heriotzari buruzko galderak egin eta ikertzeaz gain, bere iraganari, herrira lotzen duten familia eta batez ere mutil-lagunari, aurre egin behar die. Azkenean, gurasoen erregu eta aginduei entzungor egin eta Londresera bueltatzen da bere mutil lagunarekin, herri horretan geratuta bere bizitza aspergarria izango dela erabakitzen duenarekin.

### *Istoria*

Victoria gorroto duen bere herrira bueltatzen da bere ahizpa txikiaren heriotzaren berri izan bezain laster. Gorroto dio herri horri, izan ere, bere hitzetan, ezin egin daiteke ezer herri osoak jakin gabe eta lotuta eta itota sentitzen da. Etxera bueltatu eta berehala konturatzen da gurasoek han geratzeko konbentzitzen saiatuko direla baina Victoriak argi dauka hurrengo astean bueltatuko dela Londresera, han ikasten ari baita. Bere herrian pasatzen dituen zazpi egun horietan, etxetik kanpo ahalik eta denbora gehien emateko eta Anaren heriotzaren eta haurdunaldiaren arrazoien bila ibiltzen da.

Lehenengo eta behin, Ana joaten zen institutura jotzen du, han bere ahizpa zenaren lagun mina aurkitzeko esperantzarekin. Ikusten ez duela, eta ikusita ere seguru asko ezagutuko ez duela konturatzen denean hurbilen duen mutilari galdetzen dio ea badakien non dagoen. Mutilak, Anaren laguna bera, ez dela eskolara joan erantzuten dio. Victoriak, Anaren laguna dela jakitean, ea zer gertatu zen dakien galdetzen dio eta ea badakien nor den aita. Mutilak, bazuen gertatutakoaren berri eta Victoriari kontatu zion Anak hilabete batzuk zeramatzala Ramiro izeneko mutil nagusiago batekin ateratzen kontatu zion. Hala ere, Ana haurdun zegoela konturatu zenean jada ez zebilen berekin. Mutil lagun ohiari kontatu zionean, honek, berekin bueltatzeko amarru bat zela pentsatu eta ez zion sinetsi. Horrela bada, Anak ahal zuen lekutik dirua atera eta ahal zuen lekuan abortatzeko erabakia hartu zuen.

Anaren lagun mina zen Lidiak baieztatu zion istorio hau geroago eta Anaren amak preserbatiboak kentzen zizkiola gaineratu zuen. Victoria Ramiro bizi zen lekura joan eta mutilarekin hitz egin zuen. Honek kontatu zion nola hura gertatu zen gauean botikara joan zen eta nola kondoiak saldu nahi izan ez zizkioten. Hurrengo egunean ere, ospitalean ez zioten hurrengo eguneko pilula saldu nahi izan eta horrela geratu zen haurdun Ana.

Victoriak, bere kabuz istorio hau egia zela baieztatu zuen botika eta ospitalera joanda. Hau jakinda, inoiz baino gehiago herri hartatik joan behar zuela erabaki zuen, nahiz eta bere gurasoek han geratu behar zuela esan.

Bere mutil lagunari erabaki honen berri eman eta aireportura joan zen zazpigarren egunean. Mutilak erabaki horren inguruan pentsatu eta berarekin joango zela erabaki zuen, herri hartan bere etorkizuna sinpleegia izango zelakoan.

## **EGITURAKETA**

Hogeita lau kapitulutan astebetean gertatzen den istorioa kontatzen da. Kapituluez gain, egunen izenak ere jartzen ditu. Asteartetik (lehenengo bi kapituluak) astelehenera (azken kapitulua) gertatzen den istorioa kontatzen du. Beste istorio baten ikerketa kontatzen duenez gero, lehenago gertatutako gauzak ere kontatzen ditu elkarrizketa eta gogoetetan baina gertaerei dagokienez guztiz lineala da istorioa.

## **PERTSONAIAK**

### ***Victoria Iniesta***

Hogei urte inguru dituen neska erakargarria. Londresen ikasten ari dena. Ahizpa hiltzen zaio eta bere heriotza ikertzen du. Bere familia eta herriarekiko loturak ito egiten du eta independentea izan nahi du. Izaera handiko neska da baina baita maitekorra ere.

### ***Ana Iniesta***

Hamabost urteko neska nerabea. Gogoz kontrako haurdunaldi batengatik abortatzea erabaki eta hiltzen dena. Victoriaren ahizpa eta Ramiroren neska laguna izandakoa. Itxura aldetik oso erakargarria zen eta alaia eta dibertigarria.

### ***Ramiro Galvez***

Ana haurdun utzi zuen mutil harro eta handiustekoa. Ana baino nagusiagoa zen eta alde batera utzi zuen bere neskalagun ohiarekin bueltatzeko. Geroago Ana haurdun zegoela esatera joan zitzaionean ez zion sinestu, berarekin bueltatzeko amorru bat zelakoan.

### ***Jairo Cortazar***

Victoriaren mutil laguna da. Oso maitemindurik dago Victoriarekin eta berekin joaten da Londresera bizitzera Cortazar manufacturak zuzentzeko asmoa baztertuz.

### ***Victoriaren gurasoak***

Dena kontrolpean eduki nahi duten gurasoak. Kalekoak euren etxe barruko arazoez ez konturatzeko edozer egingo luketenak.

### ***Lidia***

Anaren lagun mina, Victoriari bere ikerketan laguntzen diona. Oso triste eta ahul dago bere lagun minaren heriotzagatik.

### ***Carol***

Victoriaren lagun mina. Victoria hoberen ezagutzen duen pertsona, eta horregatik esaten dio bere kontzientziaren ausikia dela.

## BALIABIDEAK

Istoria Victoriairen ikuspuntutik kontatzen da eta gertatzen diren gauzez gain bere pentsamendu eta gogoetak ageri dira. Victoriaren izaera erakargarria islatzen da idazteko eran, bere inguruko guztia modu kritikoa begiratuko balu bezala.

Hizkuntza aldetik sinplea eta ulerterra da eta ez dago zailtasun handirik irakurtzerako orduan.

Estiloa landua da. Tonu salatzailean kontatzen du istorioa eta hasieratik harrapatzen du irakurlea.

## IRITZIA

---

Eleberri honek bere azpituduluak adierazten duen bezala gogoz kontrako haurdunaldietan gazteek jasaten duten egoera zaila azaltzen du. Azpitudulua hurrengoa da: "Haurdunaldiak, norena da erantzukizuna?". Gaur egun gazte askok aurkitzen dute euren burua egoera horretan eta erraz identifikatu daiteke irakurlea liburuko pertsonaiarekin.

Horregatik, erraz jarraitzen den istorio bat da hasieratik harrapatzen duelako bat eta dibertigarria eta entretenigarria da. Aldi berean, pentsarazi egiten duen nobela bat da, salatu egiten duelako gaur egungo gizartea.

Gaia eta pertsonaia nagusiaren izaera dira aipagarrienak istorio honetan eta idazteko era zuzenak erakargarria egiten du.

Arrazoi guzti hauengatik liburu hau irakurtzea aholkatuko nioke gai honetan eta misteriozko nobela errealistetan interesatuta dagoen edonori.

# BIBLIOGRAFIA

---

*Anaren bakardadea*, Jordi Sierra i Fabra. Erein.